

Occità, basc i gallec: tres escenaris terminològics



Euskal terminologia XXI. mendean¹

MIREN AZKARATE

Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila
Filosofia eta Hezkuntza zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea



Jarri - Wikimedia Commons

Donostian 1997an izan zen Nazioarteko Terminologia Biltzarra² har daiteke terminologiak euskaraz ordura arte egindako bidearen mugarrizat. Terminologo, lexikologo eta hizkuntzalari euskaldunak, katalanak, galiziarrak, frantsesak, norvegiarrak, serbiarrak edo irlandarrak elkartu zituen nazioarteko foro hark. Terminologiaz hitz egiteko plataforma izan zen; fisika arloko, geografiako, zuzenbideko edo medikuntzako terminologiaz eta arlo bateko eta besteko arazoez. Baina, batez ere, 1970eko hamarkadaren azken urteetatik aurrera, unibertsitateek, UZEIk, IVAPek edo Elhuyarrek egindako lana kanpotarrekin partekatze aukera eman zuen foro hark. Horregatik aukeratu dut mugarri hartatik abiatzea nire ekarpenerako; hobeki esanda, ordutik hona egindakoa hartzea aztergai. Urte hark, gainera, XXI. mendeko terminologia-jarduna aztertzeraz narama. Eta bat dator, bestalde, denboran terminologiaren alorrean eginiko proposamen teoriko berriekin, euskararen jardunean ere eragin handiko izan diren proposamenekin; Terminologiaren Teoria Komunikatiboarekin (Cabré, 1999), hain zuzen ere. ‘Terminologia naturala’, ‘terminologia erreala’, ‘in vivo terminologia’, ‘testuingurudun terminologia’ batetik eta, bestetik, ‘in vitro terminologia’, ‘terminologia planifikatua’ edo ‘terminologia estandarizatua’ parez pare jartzeak bide emango dit mende honetako euskarazko terminologia-jarduera bi sail handitan banatzeko: a) terminologia-jarduera preskriptiboa; b) terminologia-jarduera deskriptiboa; eta hirugarren sail bat gehituko diet aurreko biei, c) terminologiari buruzko ikerlanak.

TERMINÀLIA 12 (2015): 60-62 · DOI: 10.2436/20.2503.01.84
ISSN: 2013-6692 (impresa); 2013-6706 (electrònica) · <http://terminalia.iec.cat>

Terminologia-jarduera preskriptiboa

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko (EBPN, 1998, http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/ebpn_sarrera/eu_6196/ebpn_sarrera_e.html) VI.3.3.a. puntuak ezarritakoa beteaz —“terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteetarako”—, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi eginkizun nagusiri ekin zion mende honen hasieran (http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/eu_12421.html). Argi ikusten da biek dutela helburu aldakortasuna sinplifikatu eta kontrolatzea. Batetik, EUSKALTERM, Euskal Terminologia Banku Publikoa (UZEIk 1987an sortuari jarraipena ematen ziona) sortu zuen 2001ean, terminologia sortu, kudeatu eta hedatzeko lanean funtsezko tresna izan zedin. Hartara, terminologia bereziaren erabilera batasuna erraztuko zen eta bikoiztasun eta anbiguitasunak saihestu.

2002an, berriz, Terminologia Batzordea sortu zuen Euskararen Aholku Batzordearen baitan, terminologia eragile nagusiek osatua —herri-administrazioek (IVAP barne), unibertsitateek, UZEIk, Elhuyarrek eta Euskaltzaindiak— terminologiaren normalizazioa helburu nagusi duena. Hauek dira, besteak beste, Terminologia Batzordearen egitekoak: terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea; terminologia lanerako irizpideak proposatzea; terminologia zabaltzea eta gomendatzea; erabaki gabeko arazoak normalizazio-txostenetan jaso, arazoak ematen dituen terminoaren inguruan ahalik eta informazio gehien biltzeko eta aldeko eta kontrako argudioak ondo islatzeko;³ landutako terminologia-lanei onespina ematea eta ponderazio-markak definitu eta finkatzea;⁴ finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea; eta onetsitako terminologiaren erabilera gomendatzea. Hitz batean, entitate ofizial baten gomendioaren bidez terminologia estandarizatu eta normalizatzea da kontua, beti ere euskararen normalizazioaren zerbitzura.⁵


Terminologia-jarduera deskriptiboa

Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programa har dezakegu terminologiaren beste modalitatearen eredutzat, terminologia deskriptiboaren, terminologia naturalaren, in vivo terminologiaren edo testuingurudun terminologiaren eredutzat (Lorente 2013⁶). EHUko Euskal

Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko hainbat irakaslek, Lengoia eta Sistema Informatikoen Sailarekin eta Elhuyar Fundazioko I+G taldeko ikertzaileekin batera 2008an abian jarri eta Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren babesarekin duen programa honek helburu argia du: unibertsitateko ingurunean erabiltzen den benetako terminologiaren berri ematea. TSE programan, irakasgaia da lan-unitatea, komunikazio akademikoko unitatetzat hartzen baita; eta abiapuntua, berriz, irakasgai bakoitzeko dokumentuak dira (edozein motatako dokumentuak: aurkezpenak, egitarauak, ariketak, apunteak, azterketak...). Adituek egiten dute terminologiaren deskribapena —irakasleek. TSE programak, orobat, egiazko terminologia aldakorra delako ustea hartzen du oinarri; eta, beraz, glosategietan ahalik eta aldaera gehien biltzea du helburu (San Martin, 2013). Lehenik GARATERM (http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria) plataformara igotzen dira irakasgai bakoitzeko dokumentu guztiak, ondoren terminoak erauzi eta sarean kontsultagai egongo diren glosategiak lantzeko. Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS) sareko kontsulta-sistema sortu da horretarako, egunen batean jasotako aldaeren arteko harmonizazioa ahalbidetu dezakeena. Komunikazio-terminologia naturala du, beraz, helburu TSE egitasmoak, jarduera deskriptiboa, billketa-lanari lehentasuna ematen diona; ondoren ikusiko da bildutako aldakortasuna murrizteko esku-hartzerik behar den ala ez.

Terminologiari buruzko ikerlanak

Ez dut amaitu nahi, modu batean edo bestean Nazioarteko Terminologia Biltzar haren ondoko den terminologiaren arloko ikerlana aipatu gabe. EHUko Euskara Institutuak 2002 urtetik aurrera antolatzen dituen Terminologia Jardunaldiek (<http://www.ehu.es/eu/web/eins/jardunaldiak>) leku berezia dute honetan. Bost Jardunaldi (2002, 2005, 2008, 2010 eta 2013), espezialitate-hizkeren eta terminologiaren hainbat alderdi aztertu dituztenak,⁷ bereziki, lerro hauetako gaiarekin zerikusi zuzenak duen “Terminologia Naturala eta Terminologia Planifikatua euskararen normalizazioari begira” gai izan zuten 2013koak.

Bestalde, TSE programak bidea irekitzen dio jasotako terminoen ikerketari ere; horren lekuko dira, besteak beste, Angulo eta Zabala (2013) lana edo Zabala eta beste hainbat ikerlarirena (2015). 

Erreferentziak

- Angulo, Patxi eta Zabala, Igone (2013): «Matematikako terminología: erabilera errealetik hiztegiatar», in Alberdi, Xabier eta Salaburu Pello (arg.), *Ugarteburu Terminología Jardunaldiak (V) (2013): Terminología naturala eta terminología planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Euskara Institutua, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, 50-73 (<http://www.ehu.es/eu/web/eins/jardunaldiak-2013#3>). [2015/07/20]
- Cabré, Maria Teresa (1999): *La terminología: Representación y comunicación. Una propuesta de base comunicativa y otros artículos*, Barcelona: Universitat Pompeu Fabra, Institut Universitari de Lingüística Aplicada (Serie Monografías, 3).
- Lorente, Mercè (2013): «Terminología in vivo y variación funcional», in Alberdi, Xabier eta Salaburu Pello (arg.), *Ugarteburu Terminología Jardunaldiak (V) (2013): Terminología naturala eta terminología planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Euskara Institutua, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2-18 (<http://www.ehu.es/eu/web/eins/jardunaldiak-2013#3>). [2015/07/20]
- San Martin, Itziar (2013): «Terminología Sareak Ehunduz: Unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminología erreala ikusgai egitea helburu duen programa», in Alberdi, Xabier eta Salaburu Pello (arg.), *Ugarteburu Terminología Jardunaldiak (V) (2013): Terminología naturala eta terminología planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Euskara Institutua, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, 20-32 (<http://www.ehu.es/eu/web/eins/jardunaldiak-2013#3>). [2015/07/20]
- Zabala, Igone; Lersundi, Mike; Martinez, Mercedes; Requero, Maria Asun & Omaetxebarria Miren Josu (2015): «Biokimikaren terminologiaren deskripzioa: erabilera errealetik hiztegiatar», in Fernandez, Beatriz eta Salaburu Pello (arg), *Ibon Sarasola Gorazarr. Homenatge, Homenaje*. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua, 679-692 (<http://www.ehu.es/ehg/sarasola>). [2015/07/20]

Oharrak

1. Aquest treball ha estat possible gràcies a la subvenció 613465 del Setè Programa Marc de la Unió Europea per a accions d'investigació. Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerlan honek Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren IT665-13 programaren bidezko finantziazioa ere izan du lan honek.
2. UZEI, & Instituto Vasco de Administración Pública. (1997). *Nazioarteko Terminología Biltzarra = Congreso Internacional de Terminología = Congrès International de Terminologie = International Congress on Terminology: Donostia-San Sebastián 1997, Azaroa-Nov. 12-13-14*. Vitoria-Gasteiz: IVAP, Donostia/San Sebastian: UZEI.
3. Terminología Batzordeak, Euskaltzaindiak ezarritako irizpideak hartzen ditu oinarri euskara estandarrerako onargarri izateko terminoek zer baldintza gutxienezko bete behar duten; gaztelaniaz eta frantsesez forma bera izatea, alegia. Ikuspegi honetatik, oso adierazgarriak dira *marakuia*, *txandal*, *bakero*, *eskalfatu*, *izerditako* eta beste zenbait buruz eginiko normalizazio-txostenak.
4. 0, baztertu beharreko terminoa; 1, termino erabilia, baina Batzordeak oraindik aztertu gabea (gogoan izan behar da EUSKAL-TERMEK 1987tik aurrerako historikoa jasotzen duela); 2, adituek proposaturiko terminoa, baina Batzordeak oraindik normalizatu gabea; 3, termino onartua, baina ez lehenetsia; 4, termino normalizatua/gomendatua. Normalizazio-lan honek guztiak, 2007an izandako Terminología Mintegia du oinarri, hein handi batean. Quebecoko l'Office Québécois de la Langue Française-ekoen parte hartzeak aukera eman zuen erakunde horren esperientzia, lan-metodologia eta normalizazio-jarduera gertutik ezagutzeko.
5. Adierazgarria da oso Terminología Batzordeak onetsitako hiztegi guztietatik, Merkataritza arlokoa izatea multzorik handiena, hau da, hizkuntza-paisaiaren normalizazioari zuzenean loturiko arlokoa (Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia; Kirol materialen hiztegia; Arropa-denden hiztegia, etab.). Bigarren multzo handiena, Lanbide Heziketaren arloko hiztegiek osatzen dute; hau da, eredu elebidunen hedatzean atzeratuen dabilen irakaskuntzako arlokoek (Makina erremintaren hiztegia; Metalurgia hiztegia; Gorputz Hezkuntzaren hiztegia...).
6. Lorentek (2013) bereizi egiten ditu hiru kontzeptuok -terminología 'naturala', 'in vivo' terminología eta 'testuingurudun' terminología- bakoitzaren jatorrizko esparru zientifikoa kontuan hartuz eta Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren hiru oinarriekin identifikatuz. Baina, lan honetan, sinonimotzat hartuko ditut, guztiak ere terminología-jarduera modu baten ezaugarriak baitira, *in vitro* terminologiaren kontrakoa den jarduera moduarena, hain zuzen ere.
7. Euskara estandarra eta espezialitate-hizkerak (2005); espezialitate-hizkeren didaktika eta komunikazioa (2008); euskararen garapena esparru akademikoetan (2010).